


EMAKUMEEN GENITALEN MUTILAZIOA, EAEn

PROFESIONALAREN OINARRIZKO PRINTZPIOAK



EMAKUNDE

EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Erakunde Autonomiaduna

Organismo Autónomo

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

Emakumeen genitalen mutilazioa EAEko testuinguruan kokatzea eta profesionalek EAEn haren aurka jarduteko oinarrizko printzipioak

Emakumeen genitalen mutilazioa (EGM) jardunbide kaltegarria da, eta emakumeen eta neskatoen giza eskubideen urraketa larritzat jotzen da nazioartean. Emakumeen aurkako indarkeriaren muturreko adierazpena da, eta genero-desoreka eta -bereizkerian du jatorria.

Istanbulgo Hitzarmena (Europako Kontseiluaren Hitzarmena, emakumearen kontrako indarkeriaren eta etxeko indarkeriaren aurkakoa) 2011ko maiatzaren 11n sinatu zen, eta Espainiako Estatuan 2014ko abuztuaren 1ean jarri zen indarrean. Hura sinatu zuten herrialdeek mutilazioari nazioartean jazartzeko konpromisoa hartu zuten, justizia unibertsalaren murrizketa posibleak horretarako eragozpen izan gabe. Hain zuzen, emakumeen genitalen mutilazioei buruzko 38. artikuluan, honako hau eskatzen zaie herrialdeei: beharrezko neurriak hartzea, direla legegintzakoak, direla bestelakoak, delitu gisa tipifika dadin emakume bati nahita ezpain handiak, ezpain txikiak nahiz

klitoria osoki edo partzialki zatitzea, oztopatzea edo beste edozer modutan mutilatzea, bai eta emakume nahiz neskato bat EGMa jasatera behartzea edo xede horretarako baliabideez hornitzea ere.

Euskadin, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeari jarraikiz, emakumeen aurkako indarkeriatzat jotzen da «sexuaren ziozko edozein ekintza bortitz, baldin eta ekintza horrek emakumeari kalte fisiko, sexual edo psikologikoa edo sufrimendua ekartzen badio edo ekar badiezaioke. Jokaera horien artean sartuko dira emakumea ekintza horiek egitearekin mehatxatzea, hertsapenak egitea edo askatasuna arbitrarioki kentzea, bizi publikoan edo pribatuan».

Lege horren esparruan, Euskal Autonomia Erkidegoko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VI. planak ezartzen du zer gidalerrok eta zer ildo nagusik orientatu behar duten X. legealdiko euskal botere publikoen jarduketa berdintasunaren arloan. Plan horren III. ardatzak, emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteari buruzkoak, esplizituki jasotzen du gure inguruan agertzen ari diren emakumeen aurkako indarkerien kontra esku hartu behar dela; esaterako, EGMaren eta sexu-esplotazioa helburu duen salerosketaren kontra. Horrez gain, plan horrek beste hainbat helburu estrategiko eta operatibo jasotzen ditu emakumeen aurkako indarkeriari buruz sentsibilizatzeari eta prebenitzeari dagokionez, bai eta indarkeria horren biktimak detektatzeari eta osoki artatzeari dagokionez ere.

Bai, hala da, EGMa ez da gure komunitatearekin zerikusirik ez duen zerbait; izan ere, migrazio-mugimenduen ondorioz, etorkinekin batera iristen zaizkigu haien kultur usadioak ere: nola gizateria osoarentzat ondasun direnak, hala desagerrarazi beharreko usadio-ohitura kaltegarriak ere. EAEn, EGMa egiten den herrialdeetatik datozen 11.000 pertsona inguru bizi dira; herrialde

horietatik datozen 0 eta 14 urte arteko nesken kopurua 1.000 ingurukoa da¹. Neska horiek mutilaziotik babestea, alarmismorik eta «arduragabekeriarik» gabe, euskal botere publikoen eginbeharra da. Alarmismorik gabe, bistakoa baita neskato gehienak ez daudela mutilazioa sufritzeko arriskuan; izan ere, jatorrizko herrialdeaz gain, etnia eta bestelako arrisku-adierazle batzuk ere hartu behar dira kontuan kasu jakin bakoitzean: adibidez, amaren eta aitaren hezkuntza-maila eta, batez ere, zer iritzi duten biek EGMari dagokionez. Eta arduragabekeriarik gabe, zeren eta arrisku estatistikoaren berri ematen digun jatorri geografikoa ezagututa, beharrezkoa baita erne eta arduratsu jokatzeko eta haur edo nerabe bakoitzak benetan duen arrisku zehatza aztertzea, kasu bakoitzean egokiak diren neurriak hartu ahal izateko.

Errealitate hori harturik abiapuntu, EGMari heltzeko, hiru ikuspuntu bateratuko dituen ikuspegi bat aplikatzearen alde egin da EAEn: giza eskubideena, generoarena eta haurren defentsarena.

EGMa emakumeen eta nesken aurkako jardunbide kaltegarria da, baina ez da bakarra; hari heltzeko, aintzat hartu behar dira genero-desorekan oinarritutako beste kultur usadio tradizional guztiak. Ildo horretan, 2015-2030 aldiko garapen jasangarrirako helburuen² artean jaso da «emakume eta neska guztientzat kaltegarria den jardunbide oro ezabatzea, esaterako haurren ezkontza goiztiar eta behartua edo emakumeen genitalen mutilazioa». Baina, horrez gain, badira gogorarazi beharreko beste jardunbide kaltegarri batzuk, hala nola emakumeak

¹ «**Diagnostikoa. Emakumeen genitalen mutilazioa Euskal Autonomia Erkidegoan**», Wassu-UAB fundazioak Emakunderentzat egina, Gasteiz, 2014ko ekaina. <http://www.emakunde.euskadi.eus/indarkeria/u72-cotevimu/eu/>

² <https://sustainabledevelopment.un.org/content/documents/1579SDGs%20Proposal.pdf>

elikatzera behartzea; emakumeei beren emankortasunaren kontrola galarazten dieten tabu eta jardunbideak; erditzearekin lotutako elikadura-tabuak eta jardunbide tradizionalak; semeak izatea nahiago, horrek alabaren estatusarentzat dakarren guztiarekin; nesken haur-hilketa; haurdunaldi goiztiarrak; edo ezkonsaria.

Beharrezkoa da emakumeen eta nesken aurkako jardunbide kaltegarri guztiak batera eta elkarrekin lotuta ulertzea, guztiek baitituzte oinarritzat genero-desoreka eta sexu-bazterkeria. Ildo horretan, azken hamar urteetan mundu osoan areagotzen ari diren hiru jardunbide kaltegarri hauei batera heltzea proposatu du NBEk: hain zuzen, gizonezko semea nahiago izateari eta horrekin lotutako jaio aurretiko hautaketari; Emakumeen Genitalen Mutilazioari, eta haurren ezkontza goiztiar eta behartuari.

Gainera, EAEn EGMari heltzeko, funtsezko giltzarri bat planteatu nahi dugu: herriak, komunitateak eta familiak ez laidoztatzearena. Izan ere, bateragarriak dira, batetik, giza eskubideen defentsan eta emakumeei eta neskei kalte egten dieten jardunbide kaltegarriak desagerrarazteko lanean erabakitasunez jokatzeko, eta, bestetik, usadio bakoitza bere testuinguru zehatzean ulertzeko behar den ezagutza eta sentikortasunaren sustatzea, azken helburua EGMa pairatzen dutenak berriro biktimizatzea delarik.

Gure planteamenduaren beste funtsetako bat zera da: saihestekoa da arretaren erdigunean osasunaren inguruko argudioak soilik jartzea edo alderdi hori gehiegi azpimarratzea. Izan ere, osasunaren gaiari heltzeak ondorio makur bat dauka; hain zuzen, zenbait herrialdetan jardunbide hori medikalizatzen ari direla. Hortaz, gaiari komunitatean heldu behar zaio, eta emakumeen

eskubideen, autonomiaren eta erabaki-gaitasunaren defentsa dira azpimarratzekoak. EGMa, osasunerako eta norberaren gorputzaren osotasunerako eskubidearen urraketa ez ezik, nor bere sexualitatea kontrolatzeko eta sexu- eta ugalketa-eskubideak modu askean erabiltzeko oztopo ere bada.

Proposatutako esku-hartzeak prebentzioa azpimarratzen du batez ere: zehazkiago, diziplinarteko eta kultur begirunezko lanketan oinarritutako prebentzioa. Hari jarraikiz, osasunaren, hezkuntzaren eta gizartearen esparruek modu koordinatuan egingo dute lan etorkin-taldeekin eta haiekin lan egiten duten erakundeekin³.

EGMaren aurkako jarduketa profesionalerako oinarrizko printzipioak

Honako hauek dira alor bakoitzerako (osasuna, hezkuntza, gizartea) proposatzen diren jarduketa profesionalerako oinarrizko printzipioak:

- Ikuspegi hirukoitza: giza eskubideak, generoa eta hauren defentsa.
- Prebentzioaren enfasia.
- Neska adingabearen interes gorena. Bigarren mailako biktimizazioa saihestea.

³ «Euskal Autonomia Erkidegoan EGMari aurre egiteko jarduketa profesionalerako oinarrizko printzipioak», Emakunde, 2015.
<http://www.emakunde.euskadi.eus/indarkeria/u72-cotevimu/eu/>

- Diziplinarrekotasuna, koordinazioa eta sareko lana.
- Prestakuntza, sentsibilizazioa eta ezagutza-sorrera.
- Familiekin lan egitea, estigmatizazioa saihestuta.
- Komunitateko eta kultura arteko lana.
- Emakumeen ahalduntzea prebentziozko esku-hartzearen estrategia eta helburu gisa.

Ikuspegi hirukoitza: giza eskubideak, generoa eta haurren defentsa

EGMa Giza Eskubideen urraketa argia da, osasun- eta gizarte-ondorioak dituen emakumeen aurkako indarkeria: emakumeen eta nesken osotasun fisikorako eskubidea urratzen du eta zuzenean eragiten du haien osasunean eta sexu- eta ugalketa-eskubideetan, ondorio gisa, genero-desorekak iraunaraziz. Emakumeek emakume izate hutsagatik pairatzen duten indarkeria mota bat da. Gainera, adingabeek ere sufritzen dute, eta, hortaz, esku-hartze profesionalaren oinarritzko printzipio bat izan behar da nesken (haurren eta nerabeen) interes gorena xedatzea, generoaren eta giza eskubideen ikuspuntuetatik.

Prebentzioaren enfasia

Azken hamarkadan, Euskadi beste herrialde batzuetatik datozen pertsonen migrazio-mugimenduen helmuga bilakatu da; besteren artean, Saharaz hegoaldeko Afrikatik datozenena. Horren eraginez, profesionalek bestelako kultur errealitateak ezagutu dituzte eta erronka berriei aurre egin behar izan diete, gizarteratze- eta akulturazio-prozesu konplexuen artean.

Gure gizartera gune geografiko, historiko, sozial eta kultural anitzetatik datozen familiak iritsi dira, baita EGMa identitatean sendo errotuta dagoen

guneetakoak ere, eta komunitate horietatik gurera bizitzera etorritako emakume eta neskenzat kaltegarriak diren usadio tradizional mota horien aurrean jarri gaitu. Talde horien pisu demografiko gero eta handiagoak iragartzen du gero eta handiagoa izango dela gure ingurunean EGMa pairatzeko arriskua duten nesken kopurua. Haatik, EAEn EGMa egiten duten herrialdeetako 11.000 pertsona inguru bizi dira, eta toki horietatik datozen 0 eta 14 urte arteko nesken kopurua 1.000 ingurukoa da. Beraz, mugatua da arriskuan edo fenomenoaren eraginpean legokeen biztanle kopurua, eta lokalizatuta dago. Horri esker, alarmismorik gabe esku hartu daiteke, argi eta garbi izanik beharrezko neurriak hartuz gero ekiteko moduko arazo bat dela.

Esku-hartze profesionalaren helburu nagusia ez da kontrolatzea edota zigortzea, baizik eta prebenitzea; hau da, arriskuan legokeen neska (haur nahiz nerabe) bakar batek ere ez dezala mutilazioa sufritu. Eta hori lortzeko, lehenbiziko urratsa da jatorrizko herrialdearen arabera arrisku «estatistikoa» atzean uztean, eta haur eta nerabe horietako bakoitzak duen benetako arriskua zehaztera pasatzea, horretarako zenbait adierazle erabilita: etnia, ama edo ahizpa nagusia(k) mutilatuta dauden ala ez, amaren eta aitaren hezkuntza-maila, amak gurasoek EGMari buruz adierazitako iritzia, e.a.

Neska adingabearen interes gorena. Bigarren mailako biktimizazioa saihestea.

Kontuan hartuta EGMaren prebentzioa dela lehentasuna, adingabeak funtsean eskubideen titular gisa aintzatetsi behar direla eta adingabe edo nerabearen interes gorenak izan behar duela esku-hartze profesionalaren gidari, bigarren mailako biktimizazio-prozesuak leuntzera bideratu behar dira jarduketa guztiak, izapide errepikakorrak saihestuz eta gutxiengoko esku-hartze, lastertasun eta espezializazioaren irizpideetara egokituz. Printzipio horri jarraikiz, lanbide-

esparruetan bermatu beharrekoa da hartutako erabaki eta ekintzek ez dutela interes horretan ondorio kaltegarririk edo kontrako eraginik izango. Horrek barne hartzen du haurren eta nerabeen informazio pertsonala tratatzean errespetuz eta konfidentziasunez jokatu beharra, bai eta arduraren etikari jarraikiz hartu beharreko erabaki konplexuagoak hartzea ere. Hala, azken urratsa litzateke babes-neurri gisa adingabeak beren familiengandik bereiztea, eta nesken interes gorenari begira beharrezkoa den kasuetan soilik egin beharrekoa.

Koordinazioa, diziplinartekotasuna eta sareko lana

Sistema bakoitzak, bai eta profesional bakoitzak ere, bere burua «Euskal Autonomia Erkidegoan EGMA prebenitzeko esku-hartzearen programaren» zati aktibo moduan ikusi behar du. Programa horrek esku-hartzearen alor guztien partaidetza eta koordinazioa ezartzen du; hau da, osasuneko, hezkuntzako nahiz zerbitzu sozialetako profesionalena, etorkinen erakundeena eta/edo EGMA nagusi den herrialdeetako etorkinekin lan egiten duten erakundeena, bai eta elkartegintzarena ere. Bai diziplina bakoitzak ezagutzari eta informazioari egiten dizkion ekarpenak eta bai sistema barruko nahiz sistema arteko sareko lana ere, biak ala biak funtsezkoak dira programaren garapen orokorrerako eta kasuan kasuko esku-hartze zehatzak gauzatzeko.

Prestakuntza, sentsibilizazioa eta ezagutza-sorrera

Gure ingurunean, errealitate berri baten aurrean gaude. Horregatik, beharrezkoa da berori ezagutzea eta aztertzea, modu koordinatuan ere, lantzen dugun alor eta testuinguru bakoitzean EGMaren prebentzioari dagokion esku-hartzea hobetze aldera. Profesionalak prestatu behar dira, EGMA sufritzeko arriskuan dauden nesken arazo hori detektatzeko,

prebenitzeko eta artatzeko gaitasunak bereganatu ditzaten. Lehentasunezkoa da EGMa egiten duten herrialdeetatik etorritako biztanle gehien duten guneetan jarduten duten profesionalei prestakuntza ematea, esku-hartze profesional egokia ziurtatzeko eta jardunbidea desagerrarazten lagunduko duen beharrezko toki-ezagutza sortzen joateko. Ildo horretan, alde batetik, euskal administrazioak erraztasunak eman beharko ditu bere zerbitzurako langileak sentibilizatzeko eta trebatzeko; bestaldetik, Euskadin EGMari dagokion ezagutza aditua sortzen lagundu beharko dute profesionalek, erregistro egokiaren bitartez eta landutako kasuak dokumentatuz eta ezagutzera emanez.

Familiekin lan egitea, estigmatizazioa saihestuz

Lanketa hori haien kulturak eta erritu-jardunbideak errespetatuz egin behar da beti, eta hori erabat bateragarria da EGMarekiko dugun errefus zuzenarekin. Garrantzitsua da familia horiekin prestakuntza lantzea, ongi ezagutu ditzaten zer ondorio fisiko eta psikiko dakartzkien praktika horrek haien alabei. Garrantzitsua da, halaber, indarrean den legeriari eta mutilazioak dakartzan ondorio penalei buruzko informazioa ematea. Horretarako, baliagarriak dira dagoeneko erabiltzen diren materialak, «Prebentzio-konpromisoa» dokumentuan zehaztuak, betiere, aurretik familiekin informazioa eta prestakuntza landu bada. Prebentzio-konpromisoari buruzko dokumentua ez da xede bat berez, baizik eta familiarekin kontzientziazte-prozesu bat gauzatu ondoren erabilitako tresna bat, eta jaioterrian gai hori lantzeko aukera ematen die.

Komunitateko eta kultura arteko lana

Herrialde horietatik datozen immigranteen kolektiboekin lan egitean, interesgarria da Euskadiko zenbait udaletxetan dauden kultura-artekotasuneko zerbitzuekin, etorkinen kolektiboekin, etorkinei laguntzen dieten GKEekin, kultur elkarteekin, emakume-taldeekin eta bestelako zerbitzuekin jardutea, arazo horiei elkarrekin aurre egiteko. Helburua argia da: komunitate horietako gizon eta emakumeek, baina bereziki emakumeek, beren lanabesak edukitzea arazo horri aurre egiteko, erru-leporatzerik eta estigmatizaziorik gabe, horrek ez baitu inondik inora arazoa desagerrarazten laguntzen. Puntu honetan, azpimarratzekoa da emakumezko etorkinak emakume gisa indartzeko premia. Nolabait, gizon eta emakume etorkinekin lan eginez prebentzio soziala lortzean datza kontua: arriskuan dauden nesken (haurren eta nerabeen) aitak inplikatzeko eta amak protagonista bilakatzea. Amen erabakitze-gaitasuna areagotzea, haiek erabaki dezaten beren alabak ez mutilatzea, eta beren jatorrizko herrialdeetara itzultzean ezezko horren eragina zabal dezaten, adibidez, erritual kaltegarriak bestelako jaiekin ordezkatzuz eta jardunbide sozialak aldatzen direla jakinaraziz.

Emakumeen ahalduntzea prebentziozko esku-hartzearen estrategia eta helburu gisa

Familien kulturekiko eta jardunbide tradizionalakiko errespetuaren, elkarrizketaren eta errurik ez leporatzearen ikuspuntutik bideratzen baditugu esku-hartzeak, estrategikoa da ezagutzaren bitartez emakumeen eta nesken ahalduntzea erraztea, eta informazioan oinarritutako gogoetari eta erabakiak hartzeari bide ematea. Beraiek beren errealitatearen, beren justifikazioen eta praktika hori iraunarazten duten kultura- eta genero-presioen eta gizarte-egituren inguruan pentsatu badezakete; beraiek arazo horri buruz hausnartu

eta urrats bat aurrera egitea erabakitzen badute: orduan soilik izango dira gai EGMaren aurkako aldaketa-prozesu baten protagonista eta buru izateko, beren komunitateetan eta beren komunitateetatik jardunbide horren bazterketa eraginez.

EAEn EGMa saihesteko esku hartzeak, hortaz, prebentzioa lehentasunezko helburu gisa lantzea eskatzen du, nahastutako alor guztiekin koordinatuta, beste kultura batzuetatik etorritako pertsonak estigmatizatzea saihestuta eta emakumeen ahalduntzearen bultzada hartuta jarduketaren ardatz nagusizat. Zalantzarik gabe, gidaliburu honen argitalpena beste urrats bat da EAEn EGMari aurre hartzeko esku-hartze programa abiarazteko, eta, ondorioz, gure ingurunean EGMa desagerrarazteko.



Erakunde Autonomiaduna

Organismo Autónomo

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO